

MIXEL ETXEKOPAR • XIRULARIA

«Aurtengo Xiru festibalera Mikel Laboa eta Roland Barthes etorriko dira»

MIKEL ASURMENDI

ZUBEROAKO Gotañe-Irabarren sortua da Mixel Etxekopar xirularia. Euskara irakaslea da Mauleko eskola publikoan eta bi seme-alabaren aita. «Xiberoko musikarekin bizi nahi dut eta, xantza hori baliatuz, herriaren alde borrokatu», esan digu. Bera dugu gaur hasiko den Xiru jaialdiaren antolatzaileetako bat.

—Abotia elkarteak antolatutako Xiru Jaialdia egingo da apirilaren 2tik 5era bitartean. Bederatzigarren aldiz egingo ere. Zer da Abotia eta zer da Xiru?

—Xiru festibala Xiru elkartearen izenean egin zen lehen lau ekitaldietan. Gotañe-Irabarne txikia izanik 400 bat bizizale— Xiru elkartearen biltzen ziren herri ekimen guztiak, denak nahastuta. 1993an, berriz, Gotañe herriak Jean Louis Davantek izkiriaturiko *Euskaldunak Iraultzan* Pastoralala eman zuen, eta dinamika on bat sorturik, Xiru festibalaz okupatzeko Abotia sortu genuen. Kantuari, dantzari eta musikari hobekiago behatzeko.

—Zergatik Xiru izena eta zer moduz orain arteko ibilbidea?

—Lehen urtean xirularien topaketa gisa abaitu zen festibala, hartakotz Xiru izena. Gero ireki beharra sentitu genuen, xirula ezin baita bereizi inguruko ohituretaik. Ibar ezberdinetako txirulariak, txistulariak eta flauta joleak bildu izan gara urteotan: biarnesak, katalandarrak, proventzarrak, aragoiarrak. Biziki ontsa joan da, urterik urte txiki geratu gara, urte guziz aberastu gara artistikoki.

—Aurten, berriz, 'Hitzen musika' deituraz aurkezten duzue jaialdia.


—Bai. Abotia antolatzen hasi ondok, hasi ginen pentsatzen guk geuk, gure ahalekin, geure kreazio bat egiten ahal genuela. Urtero hautatzen dugu gai bat. Aurten, 'Hitzen musika' aipatzean, biziri lotu nahi gatzazkio. Neska talde gazte bat ari da aurten gai konkretu bat lantzen; *Tehenta* izena du. Erran nahi baita, seaska kantak bilduz haur kanta errepertorio bat osatzen ari direla. Guk haiek segitzen eta laguntzen ditugu.

—Ekimen hau urtean zehar garatzen da, iraunkorra omen da.

—Baiki. Urtean zehar gai horren inguruan ekitaldi ezberdinak burutu nahi ditugu. Xiberoko ikastola zenbaitetan lan hori sakontzen ari dira, beren ingurumenean lantzen. Errepertorio hau bilatzean, ingurumenaren birsortze bat dute xede, beren ingurumenean berriz kantak zabaltzeko. Horrek bizitza eta ohiturak biziarazten ditu. Xiberuan odol berri bat sentitzen da bai euskararen aldetik eta bai kantaren aldetik, dinamika berri bat. Haur eta gazte berriak oso arren guratsua agertzen baitira beren erroez. Beraz, denek elkarrekin hortik abiatu nahi dugu, bizi ahal izateko, ez soilik Xiru jaialdiaren egunetan, baita urtean zehar ere.

—Hortik landa, Euskal Herriko eta Pirinioetako beste ibarretako musikariak elkartuko zarete, ezta?

—Aurtengo Xiruren berezitasun



Mixel Etxekopar xirula jotzen./MIKEL ASURMENDI

“*Neska gazte talde batek, Tehenta izenekoak, seaska kantak bildu ditu aurten*”

handiena guretzat Mikel Laboaren etortzea da. Mikelek egin duen lana, bai hitzen aldetik bai melodien aldetik, izugarria da. Roland Barthes gurekin izanen dugu ere. Bestalde, Pirinioetako bertze ibarretako musikariak jimen zaizkigu aldi berean. batzutan musika zenbait galduak bailira bezala bizi gara, baina, Biarnora, Kataluniara, Bigorrera edota Aragoira joaten gara, eta ontsa behatu eta bilatu ondok, musikari izugarriak aurkitzen ditugu. Izugarria da gainera, ze, topinimia eta musika berberak ditugu Pirinioetan gaindi. Berodola eta berlurrean bizi gara.

Urrunera joan gabe, Pirinioetan, soka-dantzak, mutildantzak eta txirulariak kausitzen ditugu.

“*'Herriko semeak' pastoralala emanen dugu Barkoxen, Patrick Queheillek idatzia*”

biarnesak, katalandarrak, aragoiarrak xirula eta tuntuna erabiltzen dituzte gure gisara.

—Etxahun-Iruriren ondok, Jean Migel Bedaxagar, zu zeu... Xirulak ba al du segidarik Zuberoan?

—Bai, prefosta. Izan dadin Pastoraletan, Maskaradetan edo Xirubezalako programetan, xiberoar xirulariek denek lotura egiten dugu eta xirulak beste bulta bat hartzen du. Etxahun Iruriren garaikidea izan zen Copen izan da guretzako erreferentzia. Mauleko gizon hau xirulak zuen premiaz ohartu zen, Bedaxagar eta biok hasten ginen orduan. Ez zen bertzerik. Copen axola handiko gizona zen eta xirula desagertuko zela oharturik, guri

erakatsi zigun.

—Kantua berriz, zertan da? Kantatzen dea Zuberoan?

—Kantua da Xiberuan euskara bezala, euskararen itxura du. Horretan maleruski erran behar da oso apal ikusten dela, euskara den bezala. batzutan ikusten dit dinamika bat, keinu batzuk, aitzina joan behar dela xendira txikitzen. euskararen antzean ikusten dut kantua.

—Pastoralak eta maskaradak diren bitartean biziko da kantua.

—Nik hazkurria hartzen dut horietan denetan. Aurten Herriko semeak pastoralala emanen dugu Barkoxen, Patrick Queheillek izkiriaturia, Fabien Lechardoy errejentak duelarik. Ni aurten koruen zuzendaria naiz eta kantu ontzale gisa ari naiz.

—Beraz, nekez baina bizi da Zuberoa. Nola igurikatzen duzu aurtengo Xiru jaialdia?

—Xiru jaialdira jendea hurbilduko dela sentitzen dut, eta ulertuko duela Xiruren zentzua. Ikasi dudanean ene ingurumena behatzen, txoriak eta hola, ikasi dut bertzeen musikak behatzea.

Hainbat emanaldi asteburu honetan

Gaurdanik (apirilaren 2tik 5era) igandera bitarte burutuko da Xiru Festibalaren 9. ekitaldia Zuberoako Gotañe-Irabarne herrian (frantsesez, Gotein-Libarrenx). 1.500 lagun biltzea espero dute antolatzaileek herriko frontoian. Hona hurrenez hurren aurtengo programa, asteburuko ekitaldiak soilik kontutan hartuz:

Larunbatean, gaueko 9etan, Gotañeko frontoian, 'Hitzen Musika' izeneko kontzertu zabalda. Besteak beste, musikari eta abeslari hauekin: Maia Pavloska (boza) eta M.J. Serrero (pianoa), Mazedoniako kantore lirikoak; Bernard Lubat (gaskoi pianojolea); Tehenta taldea (Xiberoko neska batzuk); Le Grain konpainia (Bordeleko antzerki musikala); Beñat Achiary, Joel Merak eta Mixel Etxekopar; eta Jesus Aured (akordeoilaria). Horiez

gain, Euskal Herriko eta Europako beste zenbait tokitako hainbat kantari.

Igandean, goizeko 10etan, Irabarneko jauregian, meza eta pilota partidak izango dira lehen-dabizi. Ondoren, hamaiketako herrikoia eta herriko xirulariei eta dantzarien jarduna. Eguerdiko 12etan soinu-gailu kanikaduna entzuten ahal izango da lehen aldiz. Uztaro taldeak sortu du soinutresna hori: Ernest Alkat eta Aitor Sarasua bertsolariak ere ariko dira.

Arratsaldeko 3retan, Le Grain taldeak Octologo eta Scelsi-ren musika eskainiko du, eta René Martinez eta Mixel Etxekoparren ipuin kreazioa ere entzungo da. Arratsaldeko 4retan, Lubat eta Minville (Uzesteko hil arrapizteak), eta Mama Sissoko eta bere taldea (Afrikako Malikoak).

Epaltza eta Peillen, euskararen normalizazioaz hizketan gaur Donostian

DV. DONOSTIA

Zuzenbide Fakultateko Euskarra Batzordeak antolatutako ziklo barruan, gaur Aingeru Epaltza itzultzaile nafarra eta Txomin Peillen euskaltzain ipartarra ariko dira hizketan Donostiako Etxaide kaleko 14an ONCEk daukan aretoan.

Hitzaldi irekia izango da eta arratsaldeko 6etan hasiko.

Bihar, berriz, eta baita ere euskararen normalizazioa gaitzat harturik, Euskaltzaindiko idazkariorde den Jose Luis Lizundia eta Eusko jaurlaritzako Kultura Saileko Ikerketa eta informazioko zuzendaria den Xabier Aizpurua mintzatu dira. Hauen jarduna ere 6etan hasiko da, lehen aipatutako toki berean.

Goaz, Bordaxuri eta Txalo taldeak arituko dira Debako Antzerki Astean

DV. DONOSTIA

Deba eta Itziarko XII. Antzerki Astea aurrera doa eta asteburu honetan emango zaio bukaera. Bihar, Itziarko Zabalsoro pilotalekuan eta gaueko 10.30etan hasita. Goaz taldeak Imanol Eliasek idatzitako *Geure buruari kuku!* izeneko lana eskainiko du.

Larunbatean, Bordaxuri talde ipartarrak *Bordaxuri* deritzan antzezlan eskainiko du. Emanaldi hau ez da Itziarren izango, Debako Zubeltzu zinemaren baizik, eta gaueko 10.30etan hasita. Piarres Larzabalek idatzitako lana da *Bordaxuri*, drama tankerakoa.

Eta igandean, Debako Zubeltzu aretoan eta arratsaldeko 7.30etan hasita, Txalo Produktzioak taldeak *Xagu tranpa* eskainiko du. Agatha Christiek aspaldi idatzitako lan honek 44 urte egin ditu Londresko St. Martin's antzokian, arrakasta handiz.

Irratsaio berezia Lazkao Txikiri buruz

□ Bihar bost urte beteko dira Lazkao Txiki bertsolaria hil zela eta, hori dela eta, Euskadi Irratiko *Hitza jolas bihurtu zen* saioa berezia izango da oraingoan. Larunbatean, arratsaldeko 3etatik 5etara, bertsolari hauek jardungo dute hildakoari buruz: Manuel Lasarte, Patxi Iraola, Jose Luis Gorrotxategi, Mikel Mendizabal eta Iñaki Murua./DV

Gerriko ikerlan sariketarako hiru lan

□ VIII. Gerriko ikerlan sariketarako hiru lan jaso dira: «Otxoa Arin eta Ordiziako doktrina (1713)»: «Frantzisko Areso Tolosa, organojolea eta konposatzailea (1869-1954)»: eta «Goierrri eskualdea, nondiki nora». Epaia maiatzaren amaieran jakinaraziko da. Lazkao Udala, Maizpide euskaltegia eta Goiherriko Euskal Eskola kultur elkarteak antolatutako saria da./DV